AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

68

1469/2012 EBAZPENA, azaroaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena; honen bidez, lekualdatze-lehiaketako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako teknikari espezialista sanitarioen lanbide-taldekoentzat.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 795/2012 Ebazpenaren bitartez, zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa izango duten teknikari espezialista sanitarioen lanbide-taldeko lekualdatze-lehiaketa deitu zen (2012ko irailaren 5eko EHAA, 173. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak lekualdatze-lehiaketa kalifikatuko duen epaimahaia izendatuko du, ebazpen horren 7 oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 795/2012 Ebazpenaren bitartez deitu zen teknikari espezialista sanitarioen lanbide-taldekoen lekualdatze-lehiaketako epaimahai kalifikatzailea izendatzea. Epaimahai hori Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren kideek osatzen dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Deialdiko 11. oinarrian ezarritakoaren babesean, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

TEKNIKARI ESPEZIALISTA SANITARIOAK

Epaimahaiburua:

– Titularra: Iturrieta Murguiondo, María Amaya.
– Ordezkoa: Yarritu Fernández, María Carmen.

Lehen epaimahaikidea:

– Titularra: García Maqueda, Eva Gloria.
– Ordezkoa: Martínez Orrantia, Miren Josune.

Bigarren epaimahaikidea:

– Titularra: García Lobato, Francisca Eugenia.
– Ordezkoa: Sabugal Malillos, Ana Jesús.

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Domínguez Rubio, Montserrat.
– Ordezkoa: García Triviño, María Asunción.

Laugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Rodríguez Tejedor, Santiago.
– Ordezkoa: Letona Aramburu, Juan Bautista.

Bosgarren epaimahaikidea:

– Titularra: De Léniz Aspiazu, José Antonio.
– Ordezkoa: Sastre Pérez, María Nieves.

Idazkaria:

– Titularra: Pedrosa Rodero, José Ignacio.
– Ordezkoa: Ortiz Ruiz de Loizaga, María Natividad.